



## Torturatu zituzten emakumeen testigantza gordina

Ane Eslava Serrano

@eslavaane

Torturak pairatu zituzten bost emakumek euren testigantzak kontatu dituzte Nafarroako Legebiltzarrean. Bost hamarkada ezberdinetan torturatu zituzten, baina antzeko lekukotzak kontatu dituzte. Bertaratutakoek isilik eta hunkituta entzun dituzte. Besarkada eta babes keinue bitartez lagundu diote elkarri bost hizlariak. "Barkamenak ez dit balio, mina eginda dago jada. Ez da soilik Guantananon gertatzen. Estatuaren babesarekin, Euskal Herriko eta Espainiako espetxeetan ere eman da", adierazi dute. Aitortza eskatu dute torturaren biktima bezala.

Gloria Bosque bi aldiz atxilotu zuten, 1973an eta 1975ean. "Modu basatian torturatu ninduten, biluzten ninduten eta torturazailen aurrean ibiltzera behartu. Herri mehatxuak etengabeak ziren". Franco hil zen egunean pinudi batera eraman, biluztu, jipoitu eta metrailetekin mehatxatu zuten. "Arrazoia galduko nuela uste nuen; zure giza duintasuna iraintzen dute".

Mertxe Gonzalez 1983an atxilotu zuten eta 9 hilabete igaro zituen espetxean. Polizia batek, pistola eskuan, esan zion atentatu batean hildako guardia zibil baten anaia zela eta tiro egingo ziola: "Beldurrez pixa egin nuen eta hilerokoa jaitsi zitzaidan. Ez zidaten aldatzen utzi, biluztera eta tanpaxa ahoan jartzera behartu ninduten". Makila batekin bortxatzeko

mehatxua ere egin zioten. Horren ostean bi aldiz epaitu zuten eta libre geratu zen. Lanean ez zuten berriro onartu, "han ez zutelako tokirik terroristentzat".

Marilo Gorostiaga 1994an atxilotu zuten. Egun batean polizia kable batzuk aske zituen entxufe bat erakutsi zioten. "Ikusten duzu? Hemen jarri genuen Gurutze", esan zioten, 1993ko irailean Guardia Zibilarren ziegatan hil zen Gurutze lantzi aipatuz. Mehatxuak jasotzen zituen behin eta berriz: "Guri berdin zaigu egin duzun edo ez, espetxea irentsiko duzu, azkar gainera, Eguberriak datoz eta etxera joan nahi dugu". Medikiak torturak baieztatu zituen, baina epaitegietan bertsioa aldatu zuen.

Ainara Gorostiaga 2002an atxilotu zuten eta 9 egun igaro zituen inkomunikatuta. Sexu erasoak jasan zituen: "Lau hanketan jarri eta makila ipurditik sartuko zidatela esaten zidaten. Guardia Zibil baten semea edukiko nuela esan zidaten". Elektrodoekin eta poltsarekin ere torturatu zuten eta ama atxilotu zutela esan zioten. Pistola bat jarri zioten eskuetan eta esan zioten Leitzako UPNko zinegotzia hil zuena bera zela.

Izaskun Goñi 2010ean atxilotu zuten, 23 urterekin. 2008ko azaroan hasi ziren atxilotetak Iruñean, eta bere bila etortzeko zain egon zen bi urtez, lo egin ezinik. 2010ean etxe azpian autoen atea ixten eta eskaieratan gora hotsak entzun zituenean ezin izan zion izuari eutsi, bost egun igaro zituen dardarka. "Gela horretan ikasten duzu edozer egiteko gai direla".

## EKONOMIAREN TALAIAN

### Patronalaren lotsak eta "maite-maiteak"



Juan Mari Arregi

Enplegu eta langabeziaz publikatutako martxoko azken datuek balio izan dute berriz ere moztorra kentzeko Hego Euskal Herriko kapitalismo basatiari, Cebek eta Confebask patronalek ordezkaturak. Poztu dira enplegu tasa pixka bat hazi delako, baina ezkutatu dute haren kalitate eskasa: behin-behinekoa, prekarioa eta soldata oso baxukoa.

Sinatutako kontratuek hilabete baino gutxiagoko iraupena izan ohi dute. Azken hilean 106.690 kontratu egin dira eta horietatik 97.921 behin-behinekoak izan dira, 8.769 baino ez dira mugagabeak. Eta Gizarte Segurantzaren batez besteko afiliazioak 5.107 lagun gorakada baino ez du izan. Ez dute esaten oraindik 178.000 pertsona daudela langabeturik Hego Euskal Herrian eta horietatik %60,6k ez duela inolako prestaziorik jasotzen. Ez dirudi asko axola dienik langabezia gehien jasaten dutenak emakumeak, gazteak eta 55 urtetik gorakoak izatea.

Hori bai, administrazio publikoari eskatu diote "arretaz eta maitekiro" jardun dadila bere enpresekin, eta utz ditzala albo batera "lotsak" aurrekontu sozialak mahairatzeko orduan. Hau da, pizgarriak, hobari gehiago eta sozietateen zergan kentak eskatu dituzte euren negozioei mesede egiteko, eurak omen direlako enplegua sortzen dutenak... behin-behinekoa eta prekarioa bada ere.

Administrazioa orain arte zurikerian aritu da, Kapitalaren kudeatzaile baita, eta erabaki beharko du nola ekin: enplegu kalitate eskasa inposatzen duen gutxieneko kapitalista horren zerbitzura, ala euskal jendarteak osatzen duen gehiengo sozialaren alde. "Maite-maiteak" egin eta "lotsak" kendu beharko lituzke administrazioak, baina herritarren gehiengoaren mesedetan, horien baliabideekin, hots zergekin, bizi baitira batzuk eta besteak. Horrela lortuko du enplegu duina edukitzea.